

V STUDENT CONGRESS OF THE UPV/EHU

MY FINAL DEGREE PROJECT SERVES TO TRANSFORM THE WORLD

2022

Title of the Final Degree Project (FDP)

Cycling in a cross-border tourism territory: the case of Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarre (NAEN) Euroregion.

Author

Udane Alfonso Iburguren

Degree

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza

Sustainable Development Goals (SDG) to which FDP contributes

- 3. Osasuna eta ongizatea,
- 7. Energia irisgarria eta ez kutsagarria,
- 11. Hiri eta komunitate jasagarriak,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

Abstract

Gradu amaierako lan honetan zikloturismoaren analisia egiten da Nouvelle-Aquitaine, Euskadi, Navarra (NAEN) Euroeskualdean. Anlisi hori Euroeskualdearen 2021-2027rako Plan Estrategikoaren markoan egin da, zikloturismoak, produktu turistiko gisa, kohesio soziala handitzeko, jasangarritasuna bultzatzeko eta Euroeskualdearen balio diferentziala handitzeko duen gaitasuna aztertzeko asmoz. Horretarako, lehenbizi, gai honen inguruko literatura aztertu da eta lehen eskuko informazioa jaso da, teknika kualitatiboak erabiliz. Zenbait elkarrizketa egin dira Akitania berriko, Euskadiko eta Nafarroako erakunde pribatu eta publikoekin, bi herrialdeen arteko desberdintasunak hobetzeko, Euroeskualde berean dauden hainbat agente ezberdinekin. Baita, bi behaketa azterketa egin dira, elkarrizketa informal batzuekin; errealitatearen argazki orokor bat lortze aldera. Jarraian AMIA analisia egin da, eta hura oinarritzat hartuz, zikloturismoa Euroeskualdean bultzatzeko proposamenak egin dira, beti ere Plan Estrategikoaren helburuak lortze aldera. Egindako analisiak agerian uzten du horrelako proiektu bat sustatzeko zailtasunak handiak direla baina, aldi berean, onura nabarmenak ekar diezazkiola Euroeskualdeari.

Contribution to the SDGs of the 2030 Agenda

Egindako Gradu Amaiera Lan honek hainbat ekarpen egin ditzazkela uste dut, 2030eko Agendari begira, hainbat helburutan lagun baitezake. Hamaikagarren helburuan izan dezakeen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, hiri eta komunitate iraunkorrak lortu nahi badira, herritar guztiek etxebizitza, oinarritzko zerbitzu eta garraio egokiak, eskuragarriak eta seguruak eskuratuz; erabat interesgarria izan daitekeela uste dut nire proiektua, batik bat Euroeskualdearen Plan Estrategikoaren hirugarren ardatzean landu dudaren arira, zikloturismoak, helburu hori nola lortu dezakeen ikertu dudalako. Baita, zazpigarren helburuari ere zeharka lagundu diezaiokeela esango nuke, batik bat, guztiontzako energia eskuragarria, segurua, iraunkorra eta modernoa bermatzea baitu helburu honek eta argi dago nire laneko funts garrantzitsuenetako bat zikloturismoa izanik, energia-eraginkortasuna hobetzen laguntzen baitu. Zikloturismoak, ez baitu kutsatzen, garraio publikoaren erabilera sustatzen du eta tokiko ekonomia bultzatzeko aukera bat da. Hamabigarren helburuan ere baduela garrantzia ere uste dut. Egungo produkzio- eta kontsumo-eredua aldatu nahi denez geroztik, gaur egun, turismo jasangarriak bere jarduera garatu nahi du, ingurumenean gutxieneko eragina sortuz eta nire proiektuaren ardatza zikloturismoa izanik, turismo ohiturak aldatzen laguntzen baitu. Gauzak horrela, hiritarren kontsumo ohiturak aldatu eta herrigintza sustatzeko aitzakia ona izanik. Horrela ere, Euroeskualdeko herrigintza sentimendua sustatzeko ere lagundu baitu. Zikloturismoa gaiari jarraiki, 3.helburuari ere erreferentzia egiten diola uste dut ere. Izan ere, zikloturismoak, pertsonen osasuna baita ongizatea ere sustatzen duen aisialdi aktibitatea baita. Lan honetan, zikloturismoak bere gain hartzen dituen hainbat perfil kontuan hartzen baititu. Lau helburu hauei erreferentzia egin diezaiokeela uste dut nire lanak. Jasangarritasunaren inguruan asko hitz egiten ari da gaur egun, baina benetan egiten ari diren ekintzak eta pausoak ez dira izaten ari guztiz eraginkorrak. Nire lanak argi utzi du, mugaz gaindiko proiektuak badaudela baina oraindik ere mugazgaindi jasangarria den hirigintza sustatu nahi bada, infrastruktura batzuk lortu beharrean gaudela baita bizikletaren erabilera sustatu. Gauzak horrela, uste dut nire GRALak, Euroeskualdearen errealitatea zein den aurkeztu eta etorkizun batean egin behar liratekeen hainbat ikuspuntu biltzen dituela.